Enpresagintza Fakultatea

Aktualitatea

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusak Gizarte Erantzukizunari buruzko jardunaldia antolatu du, eskualdeko arazoei benetako irtenbidea emateko asmoz.

2013/02/13

Bi egunetan zehar, asteazkenean eta ostegunean, 73 ikaslek gizarte-erantzukizunaren bidez Bidasoaldeko benetako arazoei irtenbideak bilatzeko moduari buruz hausnartu eta jarduteko aukera izango dute. Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldia antolatu du gaur eta bihar Bidasoako campusean. Fakultate horretako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduko 38 ikaslek eta Irungo La Salleko goi mailako Administrazio eta Finantzako 35 ikaslek hartuko dute parte bertan. Jardunaldiak hainbat asmo ditu: adin desberdinetako pertsonen arteko gizarte-kohesioa bultzatzea, partaideen artean esperientziak trukatzea, eta benetako arazoei elkarlanean irtenbideak eraikitzeko konpetentziak eskuratzea. Jardunaldia bukatzeko, ikasleek eskualdeko benetako arazoei irtenbidea emateko aurkezturiko proiekturik hoberena aukeratuko da.

Proposamen hoberenaren saria

“Gizarte Erantzukizuna Bidasoaldean: elkarlanean eraikiz” izeneko jardunaldia bat dator Mondragon Unibertsitateak gizartea eraldatzeko duen konpromisoarekin, eta ikasleek eskualdearen benetako arazoetan (gizarte-, ekonomia- nahiz ingurumen-arazoetan) oinarrituz lan egitea bilatzen du, horiei irtenbidea eskaintzeko asmoz. Arazo horiek RESOT mugaz gaindiko proiektuan antzeman dira.

Jardunaldia gaur, otsailaren 13an, 09:00etan hasiko da, eta lehen zeregina gizarte-eginkizunaren esanahiari buruz hausnartzea izango da. Hala, enpresa-kudeaketan irizpide etikoak ezarriz eskualdean dauden erronka nagusiei erantzuteko moduaz arituko dira ikasleak.

Gero, diziplina anitzeko lan-taldeak osatu, eta Bidasoaldeko arazo nagusiak, sozialak, ekonomikoak nahiz ingurumenekoak aztertuko dituzte. Hala, gizarte-ikuspuntutik, frantsesaren ez-ezagutza, bazterkeria-arriskuan dauden kolektibo berriak eta eskola-porrotaren gorakada aztertuko dira. Ekonomiaren ikuspuntutik, berriz, mugaz gaindiko enpresa-aukeren ez-ezagutza, enpresen arteko lankidetza-eza, eta ekintzailetzarako finantzaziorik eza landuko dira. Azkenik, ingurumenaren ikuspuntutik, hondakinen kudeaketa, uraren berrerabilpena eta ondare naturalaren babesa analizatuko dira.

Lehen eguneko arratsaldean, alor horietan lanean ari diren eragileek aurkeztuko dituzten arazoei erantzuteko irtenbideak bilatzen arituko dira ikasleak; hau da, lan-taldeek arazo horiei erantzuteko proposamenak eraikiko dituzte. Jardunaldi horretan honako eragile hauek parte hartuko dute: Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa, Emaus, Mendibil Pedagogia Zentroa, MyL Mugan, SECOT, Txingudiko Zerbitzuak eta Plaiandi Parkea.

Bigarren egunean, osteguna 14an, ikasleek Emausen Bidezko Merkataritzari buruzko tailerrean hartuko dute parte, eta ondoren, aurkezturiko arazoaren arabera, arlo bakoitzean sortu diren ideiak ezagutaraziko dira. Hiru finalista (arlo bakoitzeko bat) sarituko dira eta, azkenean, jardunaldiko proposamenik hoberena aukeratu (13:00-13:30) eta talde irabazleari sari berezia emango zaio.